# 08-06-2019

# IZENA EMATEKO ITXITA.  LEKU GUZTIAK BETE DIRA ETA!

Ekainaren 8 eta 9an Piriniotara joango gara, Aragon bailarako Somola Alta (2692m) igoko dugu. Ikuspegi izugarriak dituen tontor izkutua.

Villanuan egingo dugu lo, Triton aterpean; aurreikusita dago ostiral gauean heltzea, afaltzeko itxaroten gaituzte, beraz, ez gara oso berandu heldu behar.

Somola Alta eta Peña Nevera Ibon de Bucuesatik ikusita. Gu bestaldetik igoko gara.

## Zapatuko ibilbidea:

Villanuatik Del Paco iturrira (1250m) doan pista bat hartuko dugu (aparkalekua, eta ibilbidearen hasiera). Pista hori utzi eta De la Espata aterpera (1680m) joango gara bide bat hartuta. Aterpetik ekialderantz jarraituko dugu Bozuelo bailaratik Maranan leporantza, Somola Altatik jaisten den arroaren azpian egon arte. Arrotik igoko gara zuzenean (ipar-ekialderantz) bide erosoenetik azken harresiko beheko parteraino, zati aldapatsu zein zelaiguneak zeharkatuz. Hartxingadi batetik gandorrera igo (hego-ekialderantz) eta harkaitzen arteko pasabiderik errazena bilatuko dugu tontorrera ailegatzeko (2692m)

Tontorretik ailega garen bidetik jaitsiko gara hasieran,  metro  batzuk jaitsita  belarrezko bira bat ikusiko dugu mendbalderantz, hormen gainetik doan bira hori jarraituz, eta destrepe txiki bat egin eta gero, Somola eta Peña Neveraren arteko aran eskegiraino jeitsiko gara . Peña Neverako tontorreraino jarraituko dugu aranetik, eta handik Collaradeta eta el Fraileraino (haitzuloa). Bertatik jeitsiera aldapatsu eta zuzena dugu hegoalderantz, beheko partean eskuak baliatu beharko ditugu harrizko kanal batean. Kanala basoan amaitzen da, La Espata aterpearen gertu, eta handik igoerako bidetik edo pistatik jeitsiko gara aparkalekura.

- Distantzia: 18 km Desnibela: +/- 1665m mendiko ibilbidea bide argirik gabe.

## Domekako ibilbidea:

Frantziara pasako gara “Chemin de la Mature” izeneko ibilbide ederrera, bista zorabiagarriak ditu. “Gorges d’Enfer” eko harkaitzetan irekitako bidea da. Ibilbide zirkularra ixteko goiko partetik itzuliko gara.

- Distantzia: 9,5 km Desnibela: +/- 650m

Aurreko egunean zehaztuko dugu egun bakoitzeko ibilbidea, eguraldia kontuan hartuta.

## Eguraldiaren aurreikuspena:

LOTURA HONETAN, egunero gaurkoratzen da

## TRACKak deskargatzeko:

Somola Alta

Chemin de la Mature

Compártelo:

Click to share on WhatsApp (Opens in new window)

Click to share on Telegram (Opens in new window)

Click to share on Facebook (Opens in new window)

Click to share on X (Opens in new window)

Click to email a link to a friend (Opens in new window)

## DATU TEKNIKOAK

| | |
|---|---|
| Jarduera mota | Egun bakarreko irteera zirkularra oinez. |
| Kokapena | |
| Metatutako desnibela | 1665 m / 650 m |

| | |
|---|---|
| Luzera | 18 Km / 9,5 Km |
| Jardueraren iraupenaren aurreikuspena | |

## Elkartzeko tokia eta ordua

ostiraletik igandera arte

## Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Villanuan

## Irteerarako izena emateko azken eguna

03-06-2019

## Jakin beharreko kontu teknikoak

Mendi-mapa bat irakurtzen eta fitxan deskribatutako ibilibidea jarraitzen jakin behar da. Zenbait lekutan ez dago bide markaturik eta aitzen gainetik ibiltzen da, karst guneak zeharkatu behar dira. Eskuak erabili behar dira pasu txikiak trepatzeko eta destrepatzeko.

## Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Desnibel handiko ibilbidea da. Sasoian egon behar da.

## Material tekniko beharrezkoa

Beharrezkoa den material teknikoa Ezinbestekoa: - Mendiko botak. - Kopeta-argia. - Eguzkirako krema. - Eguzkirako betaurrekoak. - Txanoa. – Euritarako zira. – Makilak. -(Piolet eta Kranpoiak *). – Kantinplora. (1,5 litro gutxienez) – Azpantarrak. Gomendagarria: - Zapatilak (ostatu barruan egoteko). – Belarritako tapoiak (zurrungen kontrakoak). – Norberak behar dituen medikamentuak. – Burko-azala.

# Bestelako oharrak

Nola heldu:
Kotxez joango gara. Whatsapp talde bat sortuko da irteeraren koordinazioa errazteko. Irteerara etortzen diren pertsonen arabera erabakiko da beharrezkoak izango diren kotxe partikularren kopurua.

Ostatua
Bi gau partekatutako gela batean, bi afari eta bi gosarirekin. Guztira 56€.
Ostiraleko afaria 21:30ean izango da.
Bakoitzak bere etxetik eramango du ibilbidean zehar egingo den bazkarirako janaria, baita ura eta hamaiketakoa ere.

Erreserba
20 €ko ordainketa egin behar da aurretik erreserba egiteko.
Rural Kutxa-Caja Rural de Navarra: ES21 3008 0273 92 2445697325
Erreserba egiterakoan diru-sartzea egiten duenaren izena aipatu.

Oharrak
Ohe kopurua mugatua da, beraz lehenbailehen izena ematea gomendatzen da. Txakurrak eraman ahal dira, jabearen kotxean geratu ahal badira eta irteera egiteko gai badira ( ADI, karstetik ibiliko gara beraz ibilbidea ez da egokia txakurrentzako) . Zenbait lekutan txakurrak sartzea mugatuta edo guztiz debekatuta dago, ezin dira sartu ezta lotutak ere ( Parc National des Pyrenees) .

# Argibide gehiago

Pablo ///// IZENA EMATEKO ITXITA.  LEKU GUZTIAK BETE DIRA ETA  !